



BERANGOKO UDALA
(BIZKAIA)

Berangoko (Bizkaia) udalerriko Aranako 4-EU Egikaritze Unitatearen Itun Batzarrak eginiko Hitzarmen eta Estatutu proposamena hasiera batez onartzea.

Alkate-Presidenteak, uztailaren 14ko 621/2017 zk.ko Alkatetza Ebazpenaren bitartez, hasiera batez onartu du Gescoviviendas, S.L.-k idatzitako Berangoko (Bizkaia) udalerriko Aranako 4-EU Egikaritze Unitatearen Itun Batzarrak eginiko Hitzarmen eta Estatutu proposamena.

Espedientea jendaurrean azalduko da hogeiei eguneko epean, iragarkia "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratzen denetik hasita. Epe horretan, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Dokumentu osoa udalaren www.berango.org web orrian eta udal bulegoetan kontsulta daitekeela jakinarazten da.

Berango, 2017ko uztailaren 14a.

ALKATEA

Mª Isabel Landa Gaubeka